

## *Ascension Arregi Leturiaga*

*Oñati, Gipuzkoa  
(1916-2019)*

Aurkibidea

**Biografia**



Arantzazu auzoko Azpilleta baserrian jaio zen 1916an. Aita bertakoa zuen eta ama Uribarri auzoko Banastaingua baserrikoa. Hiru urte zituenean aita hil zitzaien, eta hamaseirekin ama; aitita-amamekin hazi ziren. Bost anai-arreba izan arren, bi umetan hil ziren. Arantzazura joaten zen eskolara auzoko beste umeekin batera. 28 urterekin Gesaltza baserrira ezkondu zen eta bertan bizi da orduetik.

# Zintak

## ONA-079

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-01-30
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

## Pasarteak

### 1. Anaia gerran preso

- **Erref:** ONA-079/005
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:07:45. **Bukatu:** 00:10:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

#### Laburpena:

Gerra denboran, anaia frontean harrapatu eta "gorriek" Bartzelonara preso eraman zuten. 18 kilo galduta itzuli zen kartzelatik.

### 2. Anaiak espetxean osasuna galdu

- **Erref:** ONA-079/006
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:12:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

#### Laburpena:

Bartzelonan gose handia pasatuta, Zaragozara eraman zuten anaia. Handik etxera itzuli eta gutxira, pleuraz gaixotu eta birika bat kendu zioten.

### 3. Etxerako garia Arabatik estraperloan

- **Erref:** ONA-079/007
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:12:45. **Bukatu:** 00:15:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

#### Laburpena:

Bigarren anaia bat ere eraman zuten gerrara. Ourenseko ospitalean zortzi hilabete gaixorik egon ondoren itzuli zen etxera, gerrarako alfertuta. Bitartean, etxeko garia udaletxean entregatzera behartuta zeudela, etxean errazionamenduan jasotako ogi jangaitzarekin bizi behar. Arabatik gauez

estraperloan ekartzen zuten garia, eta kaleko Tokilloko errotara eramaten zuten ehotzera, hori ere gaez.

#### 4. Errazionamendu garaia

- **Erref:** ONA-079/008
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:15:52. **Bukatu:** 00:17:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

##### Laburpena:

<p>Gerra ostean itxi zutenetik ez da berriro ireki Arantzazuko errota. Orduan kaleko Li&ntilde;atzibarreko errotara eramaten zuten garia. Hamabostean behin olioia eta kafe apurtxo bat jasotzen zuten errazionamenduan. Eho gabeko laurdendutako artoarekin egindako opil batzuk ere egunero ematen zizkieten, baina jangaitzak ziren, Asunzionek dioenez.</p>

#### 5. Gerrako kontu tristeak

- **Erref:** ONA-079/009
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:17:57. **Bukatu:** 00:19:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

##### Laburpena:

Asunzionek gogoan du nazionalistak izateagatik kaskamotz utzi zituztela batzuk kalean. Don Basilio zenaren eta Eustakio dendariaren alabak, Naparreneko Margari eta beste hiru edo lauri ebaki zieten ilea, "bengantziagatik" Asunzionen esanetan.

#### 6. Eskolara Arantzazura oinez

- **Erref:** ONA-079/011
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:20:39. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

##### Laburpena:

<p>1916ko ekainaren batean jaio zen Asunzion Azpilleta baserrian. Ikasitako eskola guztia Arantzazuko eskolan ikasi zuen. Neskatila-mutiko kuadrilla joaten ziren oinez eskolara, bidean jolasean. 11ak aldera iritsi eta 12 eta erdiak arte doktrina ikasten zuten. Arratsaldean hiruretatik lauretara izaten zuten eskola.</p>

#### 7. Eskolara mendi-bideetatik

- **Erref:** ONA-079/012

- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:27:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

#### **Laburpena:**

<p>Bi kuadrilla joaten ziren eskolara, batzuk errepidetik eta besteak menditik. Mendietxebarrin (Mi&ntilde;eruenta) oraindik bizi ziren, eta hango lau ume joaten ziren Asunzioneekin batera, Arrolatik beste bi eta bidean Sorandietakoekin elkartzen ziren. Nahiko jolas eginda iristen ziren eskolara.</p>

### **8. Arantzazuko fraidea maisu**

- **Erref:** ONA-079/013
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:27:18. **Bukatu:** 00:30:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

#### **Laburpena:**

Arantzazuko fraide bat zen eskolako maisua. Eskolak erdaraz jasotzen zituzten, baina oraindik ez zegoen zigorrik euskaraz berba egiteagatik. "Padre" Balanzategi izan zen Asunzionen irakaslea. Irakurtzen baino kontuak egiten gehiago irakasten zien. Bere kabuz ikasi zituen gero gauza asko.

### **9. Umeak ezin eskolara bidali**

- **Erref:** ONA-079/014
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:30:02. **Bukatu:** 00:31:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

#### **Laburpena:**

12-13 urtera arte joan zen eskolara, bost edo sei urterekin hasita. Ezin ziren lau urteko umeak bidali baserritik eskolara menditik. Lau birbiloba ditu jadanik Asunzionek.

### **10. Gurasoak gazterik hil zitzaizkion**

- **Erref:** ONA-079/016
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:33:02. **Bukatu:** 00:35:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

#### **Laburpena:**

<p>Jolas asko egiten zuten umetan, baina penatuta dago Asunzion eskola gehiago ikasi ez izanagatik. Aita hiru urte zituela eta ama 16 zituela hil

zitzaizkion. Anai-arrebak aitajaun-amandreekin geratu ziren. Hauek ere joan zirenean, izeba batekin geratu ziren etxean. Azpilletan 7-8 ganadu izaten zituzten, baina uztarran zebiltzanak besterik ez zituzten jezten; besteak mendikoak ziren.</p>

## 11. Arantzazun baserri gutxi bizirik

- **Erref:** ONA-079/017
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:35:30. **Bukatu:** 00:38:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

### Laburpena:

Bost anai-arreba izan ziren, baina euretatik bi gazterik hil ziren. Asunzion 28 urterekin ezkondu zen Gesaltza baserrira. Arantzazun gaur egun bost baserritan besterik ez da jendea bizi.

## 12. Etxean lan ugari

- **Erref:** ONA-079/019
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:38:18. **Bukatu:** 00:40:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

### Laburpena:

6-7 ganadu eduki izan dituzte Gesaltza baserrian. Asunzion Gesaltzara ezkondu zenean, 13 lagun ziren etxean. Berak bere lau seme-alabak zaindu eta etxeke lanak egiten zituen. 42 urterekin gizona hil zitzaion, eta egun latzak etorri ziren horren atzetik. Hirutik 12 urtera arteko lau umerekin geratu zen, baina bizimodua aurrera ateratzeko gai izan zen.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2024-05-13*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com